



Defendatzaileen Buletina

Abendua 2021



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



Aurkibidea

Aurkezpena.....	2
Defendatzaileen Etxea.....	3
Donostiako Nazioarteko Jardunaldiak.....	7
Adierazpen kolektiboa.....	9
Lucia Ixchiuri elkarrizketa.....	11
Nikel meatze bat El Estorren (Guatemala) eta bere militarizazioa.....	12
Sareak eratzen Euskal Herrian.....	17
Agenda (hurrengo jarduera).....	22



1. Aurkezpena

Irakurle maitea,

#OihartzunTalka kanpainaren hirugarren buletina aurkezten dizugu. Gure lurraldeak hurbiltzeko eta sistema kapitalista heteropatriarkalaren aurkako borrokak batzeko helburuarekin Lumaltik Herriak erakundetik ilusio handiz bultzatu dugun kanpaina, hain zuzen. Euskal Herritik, bozgorailu gisa jardun nahi dugu, elkar ezagutzeko eta, batez ere, Erdialdeko Amerikako gorputz eta lurraldeen defendatzaileek bizi duten errealitateaz sentsibilizatzeko. Horretarako, euskal biztanleekin elkarrizketarako eta hausnarketarako guneak sortzea da gure nahia.

Lehen buletinak ikusi ez badituzu, gogorarazten dizugu #OihartzunTalka 2021eko udaberrian kaleratu zela, Erdialdeko Amerikako emakumeek bultzatutako bizitzaren eta lurraldearen defentsa-prozesuetan jasandako egoeren aurrean ahotsa altxatzeko helburu tinkoarekin. Komunitatearen defendatzaile izateak dakarren egoerak salatu nahi ditugu, haiek burututako ekintzak sistema kapitalista estraktibista eta patriarkalaren aurka duten eragina gurera ekarriz. Sistema honek maila globalean inposatzen da eta sistematikoki bortxatzen gaitu uneoro. Hau da, salaketa-kanpaina bat sustatu dugu, gogoeta egiteko eta zaintza eta autodefentsa-ekintzak bideratzeko.

Buletin honetan feminismoei, zainketei, gure gorputzen eta ingurumenaren defentsari buruzko artikulu interesgarriak aurkituko dituzu. Halaber, Mesoamerikako lurraldean gertatzen ari denari buruzko informazio berria, Lumaltik Herriak erakundeak azken hilabeteetan burututako jardueren bilduma eta etortzear daudenak... eta hainbat sorpresa gehiago ere! Edozein zalantza edo iruzkin egin nahi badiguzu, idatz iezaguzu hezkontza@lumaltik.org helbide elektronikora edo jar zaitez gurekin harremanetan gure sare sozialen bidez.

Aurrera!



2. Defendatzaileen Etxea

Olatz Talaverari elkarrizketa
Basoa Proiektua, Artea.

Nola hasi zen Arteako proiektua?

Basoa proiektuaz aritzeko, lehenik Artearena aipatu beharra dago. Artea Sarean aspaldi hasi ginen migrazioaren arazoan inguruan antolatzen; izan ere, migranteen profila aldatuz joan da azken urteotan, jada ez zen hainbeste gizon gazteena, geroz eta familia gehiago heltzen ziren haurrak kale gorrian zituztenak, eta erakundeak ez daude horiek jasotzeko ondo prestatuta. Dauden aterpetxe bakarrak familia unitateak banandu eta haurrengandik aldentzen dituzte. Kanean daudenez, gizarte zerbitzuak martxan jartzen dira eta adingabeak erretiratzeko arriskua dago.

Gure baloreetan oinarritutako harrera-prozesu horretan (erabat horizontala, arrazakeriaren kontrakoa, matxismoaren kontrakoa, norberekeriarik gabea...), bere inperfekzioak ere dituen noski, konturatu ginen Europa kapitalista zela etortzen den jende asko eta askoren helmuga. Horren inguruan hausnartzen hasi ginen, hausnarketarako espazio bat izatearen ideien gainean alegia, trabatzeko espazio politiko bat izateko ideiarik buruz eta haiek ere prestakuntza jaso dezaten... Gogoeta prozesu horretan zehar, kezka eta zalantza bera zuen jende desberdinarekin elkartzen hasi ginen, eta horrela sortu zen Basoaren asanblada hori.

Zertan datza proiektua? Nori dago zuzenduta?

Asko aztertu ondoren, espazio baten beharra genuela ohartu ginen. Espazio horretan, jada politizatuta dauden eta defentsan ari diren pertsonen harrera egin nahi zaie, beren lurraldetik ihesean etorri behar izan direnak jazarpenagatik, profil publikoa jaisteagatik... Hori parte bat da. Basoan bertan, bizi izango diren komunitate berean, komunitate iraunkorrago bat egongo da, laguntzaren lehen lerroan egongo dena, baina beti Basoako komunitatearekin: Arratiakoa eta asanbladakoa, oso gogoan eta oso presente dugun gizarte-oinarria baita guretzat. Hori atal bat izango da.

Era berean, aktibismo berriei buruzko hausnarketa gune bat ere izatea nahi dugu, baita migrazioaren inguruko ikerketa gune bat ere. Hori guztia Arratiako haranean bat eginda egoteko behararekin sentitzen dugu, espazio irekia izan dadin, hausnarketak trukatzeko gune bat, topagune bat. Pixkanaka-pixkanaka egiten den lana da. Pandemiarekin agerpenarekin oso zaila izan da elkartzea: distantziak, bakoitzaren beharrak... Apurka-apurka doa.



Lehenengo fase honetan obretan izan gara batik bat. Beno, oraindik ere obretan jarraitzen dugu, baina epe ertainean da momentuz. Auzolanean ari gara, beraz, fisikoki oso lan gogorra da guretzat. Diru gutxi zegoenez, erostearen ere apustu handia izan zen, eta ekonomikoki latzena izan da. Astiro goaz, gure arreta behar duten espazio asko baitaude. Oso lotuta gaude lurrarekin, ditugun 6 hektareekin, ez baitugu proiektu hau lurretik urrun antzematen. Pentsatzeko eta bizitzeko modu bat da.

Zenbat denbora daramazue proiektuarekin?

2020ko azaroaren amaieran sinatu genuen eta abenduaren hasieran martxan jarri ginen, lehendabiziko fase horretan gaude oraindik beraz. Lehen defendatzailea ere gurekin dugu jada, eraikuntza prozesu osoan parte hartu duena, pentsatzeko prozesuan... Harreratik haratago, pentsatzeko eta sortzeko prozesuan erabat parte hartu du. Prozesua asko aberastu du bere presentziak, pentsatzeko orduan beste ikuspuntu batzuk ekarri dizkigulako, hemendik antzematen zailagoak izan daitezkeen beste pentsaera batzuk. Harrera horretara datorren pertsonarentzat oinarrizkoenak izan daitezkeen premiak kontuan hartzea, adibidez. Dalilaren presentziak hori, beraz, oso aberasgarria izan da guretzat, parekoago eta horizontalago egin gaitu nik uste. Bere ahotsa gurekin izatea. Martxan dagoen prozesu bat da eta luzerako doana.

Lurraldearen defendatzaile gehiago jasotzea da helburua?

Oraindik ikaste prozesu horretan gaude, pentsatzeko eta sentitzeko modu desberdinak daudela ikasten, eta pertsonak jasotzeko izan dezakegun gaitasuna aztertzen ari gara. Baina ez bakarrik arlo ekonomikotik, baita laguntza ematek ere, denbora hori eskaintzetik, beste modu batean egiteko. Artea Sarearekin errefuxiatu guztiekin ikusi genuen bezala, zentzurik zabalenean, hutsegite ekonomikoak zeuden bai, baina sabaia eta janaria eskaintzea ez zen nahikoa, afektua ere guztiz beharrezkoa zela antzeman genuen. Pertsona batek bere burua berreraikitzeke, egoera zailak eta gogorrak igaro dituenean, elementu afektibo hori ere behar du berriro altxatzeko. Gorputzez gorputzeko borroka edota jazarpen egoerak izan direnean, hutsune horrek, beldur horrek, are laguntza handiagoa eskatzen du, eta babestuta sentitzeko modurik onena komunitatean ondo integratuta sentitzea da.

Zergatik Artea? Zer dela eta hirigune handietatik urrun finkatzeko hautu hori?

Emakume defendatzaile askoren ikuspuntutik, hiri handiak baino hurbilago sentiarazten gaituen espazioa landa-ingurunea da. Ibaia, zuhaitzak eta berdea den ingurunea edukitzeak hurbiltasun handiagoa sentiaraz diezaike beren lurraldeei, ingurumenaren alde borrokan izan diren emakumeak dira gainera. Bestalde, Artea ekonomia zirkularraren aldeko apustua egiteko aukera ere eskaintzen digun herria da, tokikoaren kontsumoa eta autogestioa, behar duguna ekoizteko.



Basoa merkatu kapitalistatik kanpoko eta Estatutik kanpoko gunea bilakatzea nahi dugu, eta hori lortzeak asko ekoiztea suposatzen du, jende gehiago baratzetan lan egiten, gure garagardoa, xaboia, kontserbak... ekoiztea ere pentsatu dugu. Ibilbide oso bat da eta horretarako tokia eta esku asko behar ditugu.

Horretarako, beste erritmo batean bizitzea lortu beharko genuke, baina gizarte kontsumista honetan gelditzea bideraezina suertatzen da gaur egun, ez baita abiadura murriztea planteatzen. Hemen, geurea ekoizten dugu kontsumitzeko: oiloak ditugu, esnea eta gazta ekoizteko behiak ditugu...

Sendatzeko, gogoeta bideratzeko, baretasun eta lasaitasun hori ere beharrezkoak dira, eta horretarako Arteako ingurunea espazio ezin hobea da. Artea Sarea ere oso hurbileko gunea da migratu duten pertsonen hurbiltasun hori helarazteko, gurekin gogoeta egiteko aukera izateko eta denontzat eskuragarri izan dadin.

Gainera baratzeta etxetik metro gutxira dago kokatuta, eta horrek egunerokotasuna asko errazten du.

Zein beste kolektibo edo mugimenduekin egiten du lan Basoak?

Ez gara erakundeekin antolatzen. Bertan dauden kideak hainbat erakundetan egon daitezke, baina Basoara norbanako gisa etortzen gara, oso zabala eta anitza da, beraz. Artea Sarearen kasuan, esaterako, feminismotik, ekologismotik, antimilitarismotik, mugimendu ezkertiarretik, elizaren oinarritik... datorren jendea dago. Oso espazio zabala da. Era berean, euskal askapen mugimenduan edota Podemosen egon den jendea ere badago, askotarikoa da. Horrek aberastu egiten du proiektua nahitaez, nahiz eta batzuetan ikuspegi desberdinak egon, lan egiteko unean testuingurua da bilatzen dena, eta horrek aberastu egiten gaitu azkenean, egunerokotasuna eta beste ikuspuntu batzuetatik begiratzea ahalbidetzen baitu. Batzarrean 60 lagun inguru egongo dira osora, baina egunerokoan hogeit hamar bat biltzen gara.

Zein puntutan zaudete orain (Defendatzaileen Etxearen kasuan)?

Defendatzaileen kasuan, oraindik ez dago zehaztuta zenbat jende jaso ahal izango den. Joera desberdinak daude, batzuk kopurua handitzearen alde daude eta beste batzuk kalitatea gailentzen dute harreraren kantitatea baino gehiago... Zaila da. Ikus dugunez, gainontzeko defendatzaileen etxeek oso pertsona gutxi hartzen dituzte, azken finean kalitatezko harrera egin nahi baduzu ez duzulako hainbeste pertsona jasoko. Harrera hori egiteko talde on eta kopurutsu bat behar duzu. Guk, gaur egun, ez dugu profesionalizatutako jarduera bat bezala antzematen. Dena borondatez egiten ari gara, horrek suposatzen du jendeak bere lana duela eta gero proiektu honetan aritzen dela bere denbora librean. Horrek ez du esan nahi zenbait kasutan ezin dugunik profesionalen beharra izan, beharren arabera betiere.



Gaur egun, esaterako, lortu ahal izan dugun psikologoa borondatezkoa izan da ere. Gure sareei edota lor dezakegunari egiten diegu eskaera horrelako kasu zehatzetan. Azkenean, hain askotariko profilak izateak iritsiko ez ginatekeen espazioetara heltzea ahalbidetzen digu.

Etorkizunera begira, zeintzuk dira helburu nagusiak?

Urte amaieran zapatisten etorreran izango da gure ardatza. Haiekin *Caracol*-en inguruan aritu nahi dugu, topaketa hori autonomiaren inguruan antolatuz. Nola eraiki dezakegu *Caracol*-aren kontzeptu hori gure europar ikuspuntu eta testuingurutik abiatuta? lurralde hauetan hain garrantzitsuak diren beste balore horiek berreskuratzeko helburuarekin, komunitatea eta esparru publikoaren defentsan oinarrituta. COVID-19aren garai hauetan, askatasun indibidual eta kolektiboak erabat murriztuta daudenean, oso garrantzitsua da guretzat errebeldia eta alaitasun izpiritu horri eustea. Inoiz ez galtzea.

Horrekin batera, Etxea eraikitzen jarraituko dugu, autokudeaketa, baratzea eta salmenta, defendatzaileen harrerarena adostea, non eta nola egin...

Nola kolaboratu dezakegu zuekin eta proiektuarekin?

Guk igandero auzolanak izaten ditugu, beraz nahi duenak baratzean auzolanak egitera etor daiteke inolako arazorik gabe. Proiektua ezagutaraztea, beste mugimendu batzuk ezagutzea sareak ehuntzen joateko ere oso lagungarria litzateke guretzat. Ezagutzera etortzea batez ere... Auzolan horietara etorri ezin den jendeak ere laguntza eman dezake, ekonomikoa adibidez. *Crowdfunding* bat ere sortu dugu; info@basoa.eus helbidera idatz diezagukezue.



3. Donostiako Nazioarteko Jardunaldiak



Irailean, Donostian *"Lurraldearen Defendatzaileak: Abya Ayalatik erresistentzian"* jardunaldiak burutu ziren. Erdialdeko Amerikako defendatzaileekin batera, erbesteratutako defendatzaileek eta bertoko aktibistek parte hartu zuten.

Gure lurraldeetako emakume eta defendatzaileen egunerokotasunari eragiten dizkiguten gaiari buruz hitz egiteko, eztabaidatzeko eta hausnartzeko helburuarekin bildu ginen.

Hausnarketa nagusiak honako gaien inguruan ardatzu ziren:



- Ondasunen kentze basatiaren kontrako erresistentzia komunitarioen esperientziak
- Komunikazio komunitarioaren papera herri indigenen zerbitzurako
- Gure gorputzak eta sentipenak defentsarako lehen lurralde gisa aldarrikatzea
- Migrazioak dispartarako lurraldeak ere direla ikustaraztea
- Erdialdeko Amerikako migrazio prozesuetan emakumeen egoeraren inguruan hausnartzea
- Komunitate sare sendoak eratzearen garrantzia kolektiboki borrokatu ahal izateko eta lurralde eta komunitate berriak eraikitzeko

Topaketa hauetan, emakumeok bizi ditugun askotariko indarkeria eta zapalkuntza egoerak salatu eta ikusarazi ditugu, ez soilik lurraldearen defendatzaileak, baita migratu edota lurralde-gorputza defendatzen dutenak ere. Lurraren defentsan emakumeek duten protagonismoa erreskatatzea eta nabarmentzea oso garrantzitsua da, bai eta bizi duten jazarpena eta kriminalizazioa salatzea ere.



Ipar Globaleko biztanle gisa ditugun pribilegioak zalantzan jartzeak aukera eskaintzen digu beste latitude batzuetan bizi duten espoliazio eta erantzte ondorioen inguruko hausnarketak eta galderak egiteko. Hegoaldean, askotan, migratzea alternatiba bakarra bihurtu dela ulertzea ahalbidetzen digu ere.

Erresistentzia esperientziak eta estrategiak partekatzearen beharra azpimarratu nahi dugu, herrien eta lurraldearen defendatzaileen arteko elkartasuna indartzeko ezinbestekoa suertatzen baita, eta, horrela, elkarrekin eta horizontaltasunean antolatzea, natura eta izakien arteko harmonia babestuko dituzten bizi-ereduak aldarrikatzeko.



4. Adierazpen kolektiboa

2021eko irailean, El Salvador eta Guatemalako lurraldeetan erresistentzian bizi diren lurraren defendatzaileak Donostian izan genituen.

Marixela Ramos, Lucía Ixchú, Angelica Cárcamo eta Lourdes Pablok mugimendu eta erakunde sozial ezberdinak osatzen dituzte. Mugimendu eta erakunde horien buru dira eta bakoitza bere ikuspuntu propioetik, komunikazio komunitarioarekin lotuta batez ere, lurraren, kulturaren, emakumeen eskubideen eta Herri Indigenen eskubideen aldeko prozesuen parte dira.

Lumaltik Herriak, Politiki Elkartea eta testu honen amaieran sinatzen dugun erakundeok komunikatu honen bidez bat egiten dugu haien salaketa eta aldarrikapenekin.

Erdialdeko Amerikako eskualdeak bizi duen indarkeria egoera salatu nahi dugu, eta gure eremuko zenbait gobernuen jarrera diktatoriala. COVID-19ak eragindako pandemiak desberdinkeria eta prekarietate egoerak sakondu besterik ez ditu egin. Lurraldea defendatzen duten gizarte mugimenduen jazarpena eta kriminalizazioa oso kezagarria da. Feminizidioen eta emakumeen eta LGTBQ+ pertsonen aurkako indarkerien kopuruak izugarriak dira.

Gure herrialdeak aberatsak dira, biodibertsitatearen sorleku dira. Hala ere, indarkeriazko, pobreziazko eta aukerarik eta alternatibarik gabeko testuinguru horiek migrazioa bultzatzen eta behartzen dute.

Behartutako migrazioen horien kausen oinarrian Ipar Globalaren kentze prozesua dugu, eta zor historiko horren aitortpen eza salatu nahi dugu. Ondasun komunen praktika kolonialista eta suntsitzaile horiek gaur egun ere mantentzen dira, besteak beste, enpresa transnazionalen erauzketa proiektuen bitartez. Enpresa horietako asko eta asko europar kapitala dute, eta baita Euskal Herrikoa ere.

Gure estatuek ez dute pertsonak bertan geratzeko baldintzak sortzeko borondaterik eta, ondorioz, sistema globala ekonomikoki migratutako pertsona horietaz baliatzen da.

Horren truke, harrera-gizarteen konpromiso eza topatzen dugu sarritan, migratutako pertsonen eskubideak ez onartuz. Atzerritarren gaineko legeek, patriarkal eta arrazistak, egoera ahulagoan jartzen dituzte etorkinak. Askotan, herrialde aldaketek ez dituzte jatorrizko herrialdeekiko bizi baldintzak hobetzen. XXI. mendean bizi bagara ere, migratutako emakume asko esklabotza-baldintzetan bizi dira oraindik ere. Komunikabideek migratuekiko estereotipo gutxiesgarriak sustatzen dituzte. Leku-aldatzea, dolua, kriminalizazioa... indarkeriaren continuum bati buruz ari gara. Gainera, hobekuntza ekonomiko apur horrek ez du inolaz konpentsatzen jatorrizko herrialdeetako gizarte-sarearen zatiketa.



Migratzea oinarritzko eskubide bat dela aldarrikatzen dugu. Migrazio behartuaren egiturazko kausei eraso egin behar zaie. Migratu gisa defendatzea lurraldearen defentsa da ere.

Giza Eskubideen defendatzaileen definizioa eraberritu nahi dugu. Termino horrek, batzuetan, arriskuan jartzen gaitu. Beharrezkoa da bai, baina aldi berean urratzen gaitu. Defendatzaile batzuen profilak goratuz, zaurgarriak bihurtzen ditugu. Geure buruari defendatzaile deitzen ez diogun arren, defendatzen ari gara. Ez gara aktibistak hautuz. Egoerak, egiturazko indarkeriak, behartu egiten gaitu horretara. Ez dugu nekatuta edota derrigortuta defendatu nahi (gure testuinguruetan egokitzen zaiguna da, estatuek euren betebeharrak ez betetzetik abiatuta), alaitasunetik eraiki nahi dugu.

Baina, nola sor ditzakegu beste alternatiba hauek? Isiltasuna da desberdinkeriaren konplizerik onena. Onar dezagun dugun erantzukizun sozial eta sistemikoa. Onar dezagun emakume migratuen ausardia, indarra eta ekarpenak. Joera indibidualizatzailearen aurrean, eraiki dezagun kolektiboan. Indarkerien aurrean, abegi onaren kultura sustatu dezagun. Oinazeak partekatzen ikas dezagun, enpatia ehundu dezagun lurralde desberdinen artean. Batu gaitezen taldeka, indar eta alaitasun espazioetan, elkarrekin batera eraikitzeko.



5. Lucia Ixchiuri elkarrizketa

Festivales Solidarios

Lucía Donostian burututako "Lurraldearen Defendatzaileak: Abya Yalatic erresistentzian" jardunaldian gurekin izan zen partaideetako bat izan zen.

K'iche indigena, feminista komunitarioa, arkitekto eta diseinatzailea, lurraldearen eta giza eskubideen defendatzailea, artista, abeslaria, kultura sustatzailea eta kazetari komunitarioa. Totonicapan herrian jaio zen 1990. urtean, Guatemalan. 2012ko urriaren 4an Alaska mendi gailurrean Guatemalako armadak Totonicapaneko herri indigenaren aurka bideratutako sarraskiaren ondorioz, aktibista eta kazetari izateko erabakia sutsua hartu zuen.

Ikasle-mugimenduko kide gisa, hurbiletik bizi eta pairatu behar izan zituen kriminalizazio eta espetxe prozesuak euren aktibismo politikoa zela eta. Guatemalako San Carlos Unibertsitateko Kontseilu Nagusiko ikasle ordezkaria izan zen 2014tik 2016ra, arkitektura fakultatean kargu hori bete zuen lehen emakume indigena izanik.

Festivales Solidarios jaialdiaren sortzaileetako bat izan zen: 2013tik ikerketa, dokumentazioa eta arterako espazioa, memoria historikoa, lurraldearen defentsara eta kriminalizazio jorratzen dituen jaialdia, hain zuzen.

Guatemalako Irratigintza Eskola Federazioaren Maya K'at albistegiaren berriemailea da; Jun N'aoj Komunikatzaile Indigena Sarearekin kolaboratzen du; emakume indigenaz eta mestizoz osatutako Mujeres en Movimienta lan espazio feministaren sortzaileetako bat da; Somos una Abya Yala Latinoamerikako komunikazio komunitarioaren sarearen kide da; Latinoamerica Romper el Cerco (herri indigenen gaineko irrati astekaria); La Internacional Feminista; RedLGC (Red Latinoamericana de Gestión Cultural) eta Conectadas Latinoamerica artistakolektiboen sortzaileetako bat da; eta ELLA topaketa feministaren koordinazio taldeko kide da. Zutabegilea estatuko eta nazioarteko hainbat komunikabideetan.

Marixela Ramosek, Radio Victoriako kidea (<http://www.radiovictoriaes.org/>), egin zion elkarrizketa entzun dezakezu www.defensoras.org webgunean.

Elkarrizketa osoa entzun: <http://www.defensoras.org/entrevista-a-lucia-ixchiu/>



6. Nikel meatze bat El Estorren (Guatemala) eta bere militarizazioa

Carlos Ernesto Cano – Festivales Solidarios

Honakoa kontakizun labur bat da, dauden milaka gertakarien adibide soil bat, alegia. Izabal lakuaren inguruko meatzaritzaren harrapakeri eta terrorearen istorioa da, CGN-PRONIKOK, eta horren jatorria EXMIBALen, azken 60 urteetan Guatemalan eragin dutenaren istorioa. Naturaren defendatzaileen kriminalizazio eta jazarpenaren arduradun zuzenak izaten jarraitzen dute, Izabal lakuaren eta haren ingurua suntsitzearen aurka altxatu eta borrokatu baitute beti. Horiekin batera, baita nikel meatzearen jabe izan diren enpresa atzerritarrek ere, Estatuaren indar errepresiboak guardia pribatu gisa erabili izan dituztenak askotan, eskualdean dagoen baliabide mineralaren arpilaketarekin jarrai dezaten bermatzeko.

Aurrekariak

Meatze hau 1970ean jarri zen martxan, Carlos Arana Osorioren gobernuak, ekialdeko txakal ezizenaz ezaguna (herritarrek diktadore militar odolzalea izateagatik emandako ezizena), nikela, kobaltoa, burdina eta kromoa 40 urtez ustiatzeko emaki bat eman zionean Explotaciones y Exploraciones Mineras de Izabal enpresari (EXMIBAL), International Nickel Company (INCO) kanadiarraren subsidiarioa zena. Operazioen jarraipena defendatzeko, CGNko abokatuek bi argudio nagusi erabili zituzten. Lehenengoa, 70eko hamarkadan, garai hartan meategiaren jabe zirenek, ustez, kontsulta komunitario bat egin zutela. Hala balitz, Guatemalak Lanaren Nazioarteko Erakundearen 169. hitzarmena berretsi baino hiru hamarkada lehenago egingo zuketena, hau da, herri indigenek beren inguruneari eragin diezaioketen megaproiektuei buruz kontsultatuak izateko duten eskubidea arautzen duen hitzarmena berretsi baino hiru hamarkada lehenago.

Garai hartan, Inco-Exmibalaren botere politikoa hain zen handia, ezen 1962an haren jabeek Idigoras Fuentesen gobernuari iradoki baitzioten meatzaritzako lege berri bat onartzea, konpainiaren abokatuek berak idatzi zutena, herrialdearen inbertsioak sustatzeko argudioarekin.

Meatzaritzako kode berri hura 1965ean onartu zen, orduan Enrique Peralta Azurdia presidentea zenean. Kode hori bera hilabete batzuk geroago Carlos Arana Osorioren gobernuak meategiari 40 urtez Izabal eta Alta Verapaz arteko 410 kilometro lur ustiatzeko baimena emateko oinarria izango zela azaltzen du Luis Solanok "Guatemala, petróleo y minería en las entrañas del poder" liburuan.



Meatzaritzaren eta gobernu horien arteko harremana xehe-xehe aztertu zen 60ko hamarkadaren amaieran, Julio Cesar Mendez Montenegro presidentek Guatemalako San Carlos Unibertsitateari (USAC) akordio horien xehetasunak aztertzeko komisio bat sortzea eskatu zuenean. Ikerketen emaitza heriotza eta erbestea izan ziren.

Komisio horren buru Rafael Piedrasanta Arandi zegoen, garai hartan USACeko Ekonomia Zientzien Fakultateko dekanoa; beste kideak Óscar Adolfo Mijangos López, Julio Camey Herrera eta Alfonso Bauer Paiz ziren. Guztiak erasoen biktimak izan ziren Aranak boterea hartu eta meatzariak gobernuaren baimenak lortu baino lau hilabete lehenago.

1982an Inco-Exmibal herrialdetik erretiratu zen. Meategiaren itxiera gobernuak mozkinen portzentajea %1 etik %5era igotzen saiatu zenean gertatu zen. Baina Guatemalako laku handienaren, Izabal lakua, ertzetan kokatutako meatzaritzak eragindako tentsioak gutxi iraun zuen.

Bakea, iraunkorra eta meategiaren mesedetan...

Tentsioa 2004an itzuli zen El Estorrera, Sky Resources-Hudbay Minerales Kanadako konpainiak Inco-Exmibalaren akzioak erosi eta meategiak ustiatzeko lizentzia beste 40 urtez berritzeko kudeaketak hasi zituenean.

Oscar Bergerren gobernuan, estatuak herri-kontsulta bat egin behar izan zuen 2006an, Energia Ministerioak Fenix proiekturako GCNren meatze ustiapenerako lizentzia berritu behar izan zuenean. Proiektu hori 248 kilometro karratuko lurra eta mendiak hartzen zituen nikela erauzteko El Estor udalerrian, ia 36 mila futbol zelairen parekoak alegia, Guatemalako q'eqchi komunitate indigenak bizi diren lurraldean.

2006an, Luis Romero Ortíz Peláez buru zuen Energia Ministerioak meategiak ustiatzeko lizentzia berritu zuen 248 kilometro koadroko lur eta mendietarako. Urte hartan, El Estorreko gatazkak puntu berri batera iritsi ziren: komunitarioek meategiak jardun nahi zuen lur eremuen jabe zirela aldarrikatzen zuten. Orduan, gobernuak utzarazpenak agindu zituen, nekazarien etxeak erre eta q'eqchi emakumeak taldean bortxatzea eragin zutenak.

2011n, GCN jabez aldatu zuen. Trantsizio horretan hiru gazte unibertsitario hil ziren meategiko instalazioetan. 2012ko martxoan, Ibarreko Unibertsitateko hiru ikasle bertan zeuden Dulce ibaiaren krokodiloen jarraipena egiten. Gorpuak hurrengo egunean aurkitu zituzten, toki ezberdinetan eta kolpe arraroekin. Bere gurasoak justizia bila dabilta oraindik ere, eta heriotzak argitzea eskatzen dute.



Solway Investment Group partzuergo suitzarrak erosi zuen meategia 170 milioi dolarren truke. Solway nazioarteko inbertsioko talde pribatu bat da, meatzaritza eta metalurgia sektoreetako proiektuetan espezializatzen dena. Konposizio kimikoan burdinarik ez duten metalak ustiatzen dituzten hainbat meategien jabea da. Suitzan errolatuta dago, bere jatorriko etxea Maltan dago eta Guatemalan, Argentinan, Kongon, Indonesian, Mazedonian, Errusian eta Ukrainan meatze proiektuak ditu.

Solway Suitzan erregistratuta dago eta bere etxe nagusia Maltan dago. Identifikazio fitxan bere hiru zuzendariak aipatzen ditu: presidentea Dan Bronstein da, alemaniarra bera; beste biak Denis Gerasev israeldarra eta Alexey Tsvetkov errusiarrak dira. Maltako jatorri etxeko zuzendaria Aleksandr Bronstein da.

Dan Bronstein, Solwayko presidentea, 2000. urtean iritsi zen konpainiara, Romtrade Group konpainiarentzat Fusio eta Erosteko departamentuko buru gisa lanean hasi zenean. Bertan, Solwayren funtzioak eta aktiboak berrantolatu zituen. NR Growth Consulting enpresaren Aholku Batzordeko kide ere bada. Enpresa hori 2006ko abuztuan sortu zen, eta egoitza nagusia Moskun du.

Garai berriak

Nikelen Guatemalako Konpainia erosteaz gain, Solwayk bere web orrian ziurtatzen du 2001az geroztik 600 milioi dolar inbertitu dituztela meategian, batez ere Izabalen Nikela Prozesatzeko Planta (Pronico) sortzeko. Horren bidez, El Estorko mendietako mineral hezea ferronikel bihurtzen dute, burdinazko bi parte eta nikel beste bat duen materiala, batez ere altzairu herdoilgaitzaren industrian erabiltzen dena. Enpresak eraikuntza, ingeniariarritza, garraio, metalurgia eta elektronikako konpainiei saltzen die.

Dirudienez, Guatemalako nikela oso preziatua omen da munduan. Solwayk Fenix meatze proiektutik (CGN) ustiatzen duten minerala munduko 10 aberats eta puruenetako bat bezala deskribatzen du, eta tamainaz eta kalitatez potentzial handiko aztarnategia denez, euskarri garrantzitsua da munduko bost nikel ekoizle nagusienetako bat bilakatzeko estrategian.

Hori lortzeko, Guatemalako gobernuaren babesa izan zuten. 2014ko maiatzaren 30ean, lantegia berrinauguratu zutenean, konpainiako gerenteekin batera, Otto Pérez Molina presidentea zegoen, oso irribarretsu gainera.

Egun batzuk lehenago, 2014ko martxoaren 7an, Sergio de la Torre (Ekonomia), Erick Archila (Ingurumena) eta Mauricio López Bonilla (Gobernazioa) ministroak Londresera joan ziren, Solwayko ordezkariekin eta beste 9 konpainia handirekin biltzeko, merkataritza eta inbertsio aukera berriak aztertzeko.



2015eko martxoaren 26an, Sergei Lavrov, Errusiako Kanpo Arazoetako ministroa, Otto Pérez Molinarekin bildu zen. John Helmer kazetari australiarraren hitzetan, Moskun oinarrituta dagoena, errusiarrek herrialdean egindako inbertsioak eta Solwayren jabeen esku hartzea izan zen bisita horren helburu nagusia.

Perez Molinak esan zuenez, Errusiako kantzilerraren bisitan “merkataritza izan zen hizpide, Guatemalan enpresa handienetako bat errusiarra baita, nikela ateratzen duena hain zuzen”.

Bisitan, Lavrov Erdialdeko Amerikako homologoekin bildu zen ere, eta Errusia Integrazio Ekonomikoko Sistemaren eta Latinoamerikako eta Karibeko Estatuaren Komunitatearen (CELAC) kanpoko kide behatzailea izatea eskatu zuen. Behatzaile eginkizun hori egiten duten beste herrialde batzuk Alemania, Australia, Taiwan, Frantzia eta abar dira. Lavrovek esan zuen Erdialdeko Amerikak eta Errusiak “antzeko esportazio egitura dutela” eta, beraz, indarrak batu beharko lituzketela trukeak areagotzeko eta logistika optimizatzeko.

Hilabete batzuk geroago, 2015eko azaroan, Kongresuan Estatuko aurrekontua onartzen zen bitartean, Patriota y Lider alderdiko diputatuek meatzaritzako jarduerengatik erregalien kopurua %1etik %10era igotzea proposatu zuten, baina ez mineral guztientzat. Nikela eta jadea proposamen horretatik kanpo geratu ziren. Garai horretan, Amílcar Pop diputatuak esan zuen erregalien ordainketaren portzentai horiek gobernuak eztabaidatu zituela erauzketa enpresen sektorearekin.

Jimmy Moralesen gobernuarekin azken bilera Nazio Batuen 73. Batzar Nagusia izan zen. Lavrov Guatemalako Sandra Jovel kantzilerrarekin bildu zen irailaren 25ean. Ondoren, Alexander Bortnikov Errusiako Segurtasun Federaleko Zerbitzuko buruaren, Alexander Hoholikov Errusiak Guatemalan duen enbaxadore bereziaren eta Jafeth Cabrera presidenteordearen arteko bilera eman zen.

—Aldebiko harremanen egoerari eta garapen perspektibei buruzko gaiak jorratu ziren bertan. Cabrerak Guatemalaren jarrera berretsi zuen ikuspegi politikoari dagokionez, lankidetzaren areagotzea zenbait esparrutan eta Errusia-Guatemala harremanen oinarri juridikoa indartzearen garrantzia —, jakinarazi zuen Errusiak.

Kriminalizazioa eta etengabeko setio-egoerak...

Azken urteotan, arrantzaleak, emakume indigenak, kazetariak eta komunikatzaile komunitarioak kriminalizatzea izan da araua El Estor udalerrian: duela milaka urtez bizi duten lurraldetik meategia erretiratzeko oihukatzen eta eskatzen duten ahotsak isilarazteko eta beldurtzeko helburuarekin.

Jazarpen, beldurrarazte eta indarkeria ekintza horiek segurtasun-indar estataletatik etorri dira, baina eskualdean urduritasuna eragiten duten talde paramilitarretatik ere badatoz askotan.



Baina kriminalizazio ekintzak ez ezik, judizializazioaren gehiegizko erabilera ere item iraunkorra da Izabal lakuaren eskualdean; hori meatzaritza enpresek Guatemalako sistema judiziala nahi bezala erabiltzearen ondorioa da, arrantzaleak, emakume indigenak eta giza eskubideen defendatzaileak espetxean mantentzeko edota neurri bereziak ezartzeko, beren lurraldeetatik irten ez daitezen eta Izabal lakuan gertatzen dena salatzen jarrai ez dezaten.

Salbuespen-egoerak, setio-egoerak eta etxeratze-aginduak erruz deklaratzearen logika horretan, Guatemalako gobernuak setio-egoera ezarri zuen joan den urriaren 24an, eta, ondoren, Errepublikako Kongresuak berretsi egin zuen. Horrela, kriminalizazio espiral batean sartu zen berriz ere, eremu horretako komunitateen protesta baketsuaren aurrean; berriz ere, etxeratze-aginteak, judizioz kanpoko atxiloketak, legez kanpoko atxikipenak eta komunitatearen irratien eta giza etxeen indar sartzak dira nagusi.

Konstituzio Gorteak Solway Investmente Group meategi errusiarrak eta CGN-PRONICO Guatemalako filialak lanik ez egiteko epaia eman arren, legez kanpo jarduten jarraitzen dute.

Q´eqchi herriak deia luzatu dio nazioko eta nazioarteko komunitateak begirada El Estorrera itzul zezan, berandu izan baino lehen eta estatuaren terrorearen urteetara itzul gaitzen, joan den mendeko 70eko eta 80ko hamarkadetan gertatu zen bezala mendebaldeko hemisferioak, eta bereziki Erdialdeko Amerikak, jasan zuen gerrarik luze eta krudelenetako bat eman ez dadin berriro ere.



7. Sareak eratzen Euskal Herrian

Urteko azken hilabetetan, Lumaltik Herriak eta Jóvenes y Desarrollo Euskal Herriko hainbat herri, unibertsitate eta irratitan zehar ibili gara. Hitzaldiak, elkarrizketak, topaketak, herri gosariak eta bazkariak, erakusketak, elkarrizketak, jardunaldiak, tailerrak... izan dira lurraldeko Erdialdeko Amerikako defendatzaileekin esperientziak partekatzeko bideratu ditugun espazioak.



Donostia:

Nazioarteko Topaketa
"Lurraldearen defendatzaileak:
Abya Yalatic Erresistentziak"

"Feminismo komunitarioa eta komunikazio komunitarioari buruzko" tailerrak Lucía Ixchú eta Marixela Ramosek dinamizatuak.



Deba:

DIT ((Deba-Itziarko Talde Feminista.) Feministarekin batera antolatutako topaketa



Ondarroa:

Solasaldia eta dokumentalaren proiektzioa Gastetxiko kideekin batera



Artea:

Mujeres del Mundo Babel eta *Mujeres Tejiendo Red* elkarteekin "Jakituria Haziak Landatzen".



Herri bazkaria eta topaketa Erdialdeko Amerikako lurraldearen defendatzaileekin eta bertoko aktibistekin Basoan



Bilbo:

Herri gosaria Egoetxean *Mujeres del Mundo* elkartearekin.



Ondarroa:

Solasaldia eta dokumentalaren proiektzioa Gastetxiko kideekin batera



Artea:

Mujeres del Mundo Babel eta *Mujeres Tejiendo Red* elkarteekin "Jakituria Haziak Landatzen".



"Herri bazkaria eta topaketa Erdialdeko Amerikako lurraldearen defendatzaileekin eta bertoko aktibistekin Basoan



Bilbo:

Herri gosaria Egoetxean Mujeres del Mundo elkartearekin.



Mutriku:

Hitzaldia Erdialdeko Amerikako defendatzaileekin Zabil Kultur Etxean, udaletxeko Inmigrazio Sailak antolatua.



Gasteiz:

"Defensoras: la historia que no te cuentan" dokumentalaren proiektioa eta mahai-ingurua Zapateneoan.



Unibertsitateak:

Topaketak unibertsitateetako ikasle eta irakasleekin

Hezkuntza eta Kirol Fakultatea, Deustuko Unibertsitatea. Irakasgaia: genero ikuspegia gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzean, gizarte hezkuntzako gradua.



Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea, UPV/EHU Donostia. Irakasgaia: antropologia Politikoa, Gizarte Antropologiako Graduaren barruan.



Lan Harremanen eta Gizarte Langintzaren Fakultatea, UPV/EHU Gasteiz. Ikasgaia: Gizarte Errealitateen Behatokia, Gizarte Langintzako Graduaren barruan.



Irratiak:

Elkarrizketak 97 Irratia, Herri Irratia eta Hala Bedin



Erakusketak:

Okendo Kultur Etxea, Donostia



Eskola politeknikoa, Mondragon Unibertsitatea. Hernani.



Eltzia erakusketa aretoa.



Bizkaia Aretoa - UPV/EHU



8. Agenda (hurrengo jarduerak)

Lumaltik Herriak erakundetik Giza Eskubideen aldeko bira bat prestatzen ari gara 2022ko otsailerako. Jarduerak honako hauek izango dira: Nazioarteko Jardunaldiak Gipuzkoan eta Bizkaian, topaketak kolektibo feministekin eta Euskal Herriko hainbat udalerritako gizarte mugimenduekin.

Gonbidatuak Cattrachas Kolektibotik (Honduras), Petén Ixqik-eko Emakumeen Elkartetik (Guatemala) eta Fray Bartolomé de las Casas Giza Eskubideen Zentrotik (Chiapas) etorriko dira.

Gure helburu nagusia salaketa eta hausnarketa kolektiborako espazioak sustatzen jarraitzea da, sareak eta aliantzak indartzeko, batez ere:

- Erresistentzia prozesuak zabalduz eta Erdialdeko Amerikako lurraldearen defendatzaileen esperientzia konkretuak ikusaraziz, lurraldea defendatzeko borroka lokal eta globalen arteko puntu komunak aurkitzeko.
- Defendatzaileen agendetan funtsezkotzat jotzen ditugun gaien inguruko hausnarketa sustatzea, hala nola:
 - Ekologismoa eta ondasun komunen defentsa
 - Emakume eta identitate sexual ez-bitarren eskubideen defentsa
 - Feminista-antiarrazista-internazionalista ahizpatasun aliantzak
 - Emakumeen migrazio prozesuak
 - Sendatze eta zaintza prozesuan garrantzia

Jardueren inguruko informazio gehiago lortzeko idatzi: **hezkontza@lumaltik.org**

